



## **EZ KONFINAMENDUAN, EZ INOIZ LESBOFOBIARIK EZ!**

**2020ko Apirilak 26a, IKUSGARRITASUN LESBIKOAREN EGUNA**

Feminismoan ikasi dugu eremu pribatuak, familiak eta etxeak, babes eta bake gune izatetik urrun, biolentziak zeharkatutako eremuak direla emakumeontzat eta generoaren disidenteontzat. Premisa hau oso nabarmenki gorpuztu dugu pandemia garaian hartu diren neurriekin. Konfinamenduak ikusezinago bihurtu gaitu, pairatu ditugun erasoak ikusezin bihurtu dituen bezala. Lesbofobia, hemen eta orain gertatzen delako, euskal jendartean.

Pinkwashingaren aroan, nork izendatzen ditu, esaterako, familia lesbofobo batean hilabete luze giltzapetuta daramaten neska gazte bolleren bizipenak? Etxean geratzera behartu gaituzte baina etxeak askorentzat espazio seguruak ez direla kontutan izan gabe.

Horregatik, Euskal Herriko Bilgune Feministan ozen diogu: Lesbofobiarik ez! Ez konfinamenduan, ez inoiz! Eraso lesbofoboaren aurrean autodefentsa feminista!

Ezkutuan nahi gaituzte, baina armairuak, atea, leihoak, markoak, paretak eta sarrailak apurtu ditugu, eta markoetatik gaindi hemen gaude! Printze urdinik gabe, heteroaraua desobedituz, aske izan eta aske maitatzeko bidean goaz. Ez ditugu gure harremanak eta gorputzak arauaren barruan sartu nahi, araua bera lehertu nahi dugulako. Hemen gaude, bollarak gara eta harro gaude.

Gora antolakuntza eta borroka bollofeminista!

**Euskal Herriko Bilgune Feminista**  
2020ko apirilaren 24ean